| ELKARTEAREN ESTATUTUAK | ESTATUTOS DE LA ASOCIACIÓN |
|---|---|
| LEHENENGO KAPITULUA<br>IZENA | CAPÍTULO PRIMERO<br>DENOMINACIÓN |
| 1. artikulua.-<br>1.995eko irailaren 11n inskribaturiko eta Erregistro zenbakia AS/B/05524/1995 duen irabazteko asmorik gabeko Asociación de Donantes de Sangre de Bizkaia "DOSANBIZ" Bizkaiko Odol Emoileen Elkartearen estatutuak ekainaren 22ko 7/2007 Legea eta martxoaren 22ko 1/2002 lege Organikoan, Elkarteei buruzkoa, ezartzen duenaren arabera izan dira aldatuak eta gaurkotuak 2009ko martxoaren 5ean egindako Batzar Nagusi Berezian.<br><br>Aipatutako elkarteak honako araubidea izango du: Elkarteen Legea, estatutu hauek berak (Legearen aurkakoak ez badira), bere Zuzendaritza Batzordeak behar bezala hartutako erabakiak (Legearen edota estatutuen aurkakoak ez badira) eta Eusko Jaurlaritzak xedatzen dituen arauak (azken hauek osagarri besterik ez dira izango). | Artículo 1.-<br>Los presentes Estatutos de la Asociación de Donantes de Sangre de Bizkaia "DOSANBIZ" Bizkaiko Odol Emoileen Elkartea nº de registro AS/B/05524/1995 inscrita con fecha 11 de septiembre de 1.995 han sido modificados en la Asamblea General Extraordinaria de fecha 5 de marzo de 2.009, de conformidad con lo establecido en la Ley 7/2007, de 22 de junio de Asociaciones de Euskadi y la Ley orgánica 1/2002, de 22 de marzo, reguladora del Derecho de Asociación.<br><br>Dicha Asociación se regirá por los preceptos de las citadas Leyes de Asociaciones, por los presentes Estatutos en cuanto no estén en contradicción con la Ley, por los acuerdos válidamente adoptados por sus órganos de gobierno, siempre que no sean contrarios a la Ley y/o a los Estatutos, y por las disposiciones reglamentarias que apruebe el Gobierno Vasco, que solamente tendrán carácter supletorio. |
| ELKARTEAREN HELBURUAK | FINES QUE SE PROPONE |
| 2. artikulua.-<br>Elkarte honen helburuak honako hauek dira:<br><br>1.- Odol-emate altruista sustatu eta kudeatzea, Transfusio eta Giza Ehunen Euskal Zentroaren zuzendaritzarekin lankidetzan, gure erkidegoan odol-emateen arloan geure burua aski izateko, indarrean dagoen araudiak ezarritako kalitate eta segurtasun irizpideen pean.<br>2.- Odol-ematea sustatu, estimulatu eta laguntzea eta herritarren artean odol-ematearen beharrari buruzko etengabeko heziketa-lana burutzea.<br>3.- Odol-ematearen altruismo printzipioa oinarritzat hartuta, gizarteko sektore desberdinetan elkartasun izpiritua sustatzea, inolako bazterkeriarik egin gabe, kidetuen eta hauen lanaren onuradunen arteko lankidetza sortuz.<br>4.- Odol-ematearen gizarte-onarpen ekintzak sustatzea, horretarako, kasuan-kasuan emanaldi jakin batzuetara iristen diren emaileei omenaldiak eginez. | Artículo 2.-<br>Los fines de esta Asociación son:<br><br>1.- La promoción y gestión de la donación altruista de sangre, en colaboración con la dirección del Centro Vasco de Transfusión y Tejidos Humanos, para conseguir una autosuficiencia de donaciones de sangre en nuestra comunidad, bajos los criterios de calidad y de seguridad que marca la normativa vigente.<br>2.- Fomentar, estimular y apoyar la donación de sangre y desarrollar una labor continuada de educación ciudadana sobre la necesidad de la donación de sangre.<br>3.- Partiendo del principio de altruismo de la donación de sangre, fomentar el espíritu de solidaridad entre los diferentes sectores de la sociedad, sin discriminación alguna, creando lazos de cooperación entre sus asociados y los beneficiarios de su labor.<br>4.- Fomentar los actos de reconocimiento social de la donación, mediante la realización de homenaje a los donantes que cumplan un número determinado de donaciones para cada caso. |
| SOZIETATE EGOITZA | DOMICILIO SOCIAL |
| 3. artikulua.- Elkarte honen helbide nagusia honakoa izango da: Galdakao-Usansoloko Ospitalea. Transfusio eta Giza Ehunen Euskal Zentroa (Osakidetza). Labeaga auzoa z/g. 48960 - Galdakao - Bizkaia. | Artículo 3.- El domicilio principal de esta Asociación estará ubicado en Hospital de Galdakao-Usansolo. Centro Vasco de Transfusión y Tejidos Humanos (Osakidetza). Bº Labeaga s/n 48960 - Galdakao - Bizkaia. |
| LURRALDE EREMUA | ÁMBITO TERRITORIAL |
| 4. artikulua.- Elkarte honen ekintzak, honako lurralde-eremu honetan gauzatuko dira nagusiki: BIZKAIAn | Artículo 4.- El ámbito territorial en el que desarrollará principalmente sus funciones comprende el territorio histórico de BIZKAIA. |
| IRAUPENA ETA DEMOKRAZIA-ARAUA | DURACIÓN Y CARÁCTER DEMOCRÁTICO |
| 5. artikulua.- Elkartea betiko eratzen da. Ohiz kanpoko Batzar Nagusi Bereziaren erabaki bidez baino ezingo da desegin, VI. kapituluan esaten den bezala, edo legeetan jasotako arrazoiren batengatik.<br>Elkartearen funtzionamendua eta barne-antolamendua demokratikoak izan beharko dira, eta pluraltasuna | Artículo 5.- La Asociación se constituye con carácter permanente, y sólo se disolverá por acuerdo de la Asamblea General Extraordinaria según lo dispuesto en el Capítulo VI o por cualquiera de las causas previstas en las Leyes.<br>La organización interna y el funcionamiento de la |

erabat errespetatu beharko da. Erabat deusezak izango dira elkartzeko oinarrizko eskubidearen alderdietako edozein betetzen ez duten hitzarmenak, estatutu-xedapenak eta erabakiak.

Asociación deberán ser democráticos, con pleno respeto al pluralismo. Serán nulos de pleno derecho los pactos, disposiciones estatutarias y acuerdos que desconozcan cualquiera de los aspectos del derecho fundamental de asociación.

## BIGARREN KAPITULUA

## ZUZENDARITZA ETA ADMINISTRAZIO ORGANOAK

## CAPÍTULO SEGUNDO

## ÓRGANOS DE GOBIERNO Y ADMINISTRACIÓN

6. artikulua.- Kide anitzeko honako organo hauek izango dira Elkartearen Zuzendaritza eta administrazioaren arduradunak:

- Eskubidezko Bazkideen Batzar Nagusia, organo goren gisa.
- Zuzendaritza Batzordea, kide anitzeko zuzendaritza-organo iraunkorra.
- Eskualdeko lan batzordeak.

Artículo 6.- El gobierno y administración de la Asociación estarán a cargo de los siguientes órganos colegiados:

- La Asamblea General de Socios/as de derecho, como órgano supremo.
- La Junta Directiva, como órgano colegiado de dirección permanente.
- Comisiones de trabajo por zonas.

## BATZAR NAGUSIA

7. artikulua.- Bazkide guztiek osatzen duten Batzar Nagusiaren bidez adieraziko dira bazkideen nahiak.

Batzar Nagusiaren eskumenak:

a) Elkartearen jarduerako plan orokorra onartzea.
b)Urteko kontuak eta hurrengo urteko aurrekontua aztertu eta onartzea.
c) Zuzendaritza Batzordearen kudeaketa onartzea.
d) Zuzendaritza Batzordeko kideak hautatzea.
e) Estatutuak aldatzea.
f) Elkartea desegitea.
g) Beste elkarte batzuekin batera federazioak eta konfederazioak osatzea, edota horietako batzuk uztea.
h) Ondasunak xedatu edo besterentzea.
i)Ordezkaritza organoetako kideen ordainsariak adostea, hala dagokionean.
j) Beste sozietate-organoren bati esleitu gabeko beste edozein eskumen.
k) Pertsona kidetuen behin betiko banantze erabakia hartzea.

## LA ASAMBLEA GENERAL

Artículo 7.- La Asamblea General, integrada por la totalidad de socios/as de derecho, es el órgano de expresión de la voluntad de éstos/as.

Son facultades de la Asamblea General:

a) Aprobar el plan general de actuación de la Asociación.
b) Examinar y aprobar las cuentas anuales y el Presupuesto del ejercicio siguiente.
c) Aprobar la gestión de la Junta Directiva.
d) Elección de los miembros de la Junta Directiva.
e) Modificación de Estatutos.
f) Disolución de la asociación.
g) La federación y confederación con otras asociaciones, o el abandono de algunas de ellas.
h) Disposición o enajenación de bienes.
i) Acordar, en su caso, la remuneración de los miembros de los órganos de representación.
j)Cualquiera otra competencia no atribuida a otro órgano social
k) La adopción del acuerdo de separación definitiva de las personas asociadas

8. artikulua.- Batzar Nagusiak ohizko bilerak eta bilera bereziak egingo ditu.

artículo 8.- La Asamblea General se reunirá en sesiones ordinarias y extraordinarias.

9. artikulua.- Ohizko bilera egiteko deia gutxienez urtean behin egin beharko da: lehenengo hiruhilekoan izango da, 7. artikuluko a) b) eta c) letretan zehaztutako erabakiak hartze aldera. Ohizko bigarren bilera baterako deia ere egingo da urteko bigarren seihilekoan elkartearen martxa eta kudeaketaren berri emateko.

artículo 9.- La Asamblea General deberá ser convocada en sesión ordinaria, al menos una vez al año, dentro del primer trimestre, a fin de adoptar los Acuerdos previstos en el artículo 7º-a), b) y c). También se convocará una segunda reunión ordinaria dentro del segundo semestre del año para dar cuenta de la marcha y gestión de la asociación.

10. artikulua.- Batzar Nagusia Zuzendaritza Batzordeak erabakitakoan bilduko da bilkura berezian, bere kabuz edota bazkideen % 10ek eskatuta Bilkura eskatzeko arrazoiak eta helburuak azaldu beharko dituzte. Dena den, honako gaiak aztertzeko eta erabakitzeko bilera egin beharko da:

a) Estatutuak aldatzea.
b) Elkartea desegitea.

artículo 10.- La Asamblea General se reunirá en sesión extraordinaria cuando así lo acuerde la Junta Directiva, bien por propia iniciativa, o porque lo solicite el 10 % de los asociados, indicando los motivos y fin de la reunión y, en todo caso, para conocer y decidir sobre las siguientes materias:

a) Modificaciones Estatutarias.
b) Disolución de la Asociación.

11. artikulua.- Batzar Nagusietarako deialdiak idatziz egin behar dira, eta bilerak egingo diren tokia, eguna eta ordua adierazi beharko dira, bai eta gai-zerrenda ere, eztabaidatuko diren gaien aipamen zehatzarekin. Deialdia egiten denetik lehenengo deialdiko batzarra egiteko jarritako egunera bitartean gutxienez hamabost egun izan beharko dira. Hala badagokio,

Las convocatorias de las Asambleas Generales se realizarán por escrito expresando el lugar, día y hora de la reunión, así como el orden del día con expresión concreta de los asuntos a tratar. Entre la convocatoria y el día señalado para la celebración de la Asamblea en primera convocatoria habrán de mediar al menos quince días, pudiendo así mismo hacerse constar si procediera, la fecha y hora en que se reunirá la

bigarren deialdiaren data eta ordua adieraz daitezke; dena dela, deialdi batetik bestera gutxienez ordu erdiko tartea utzi behar da.

Batzar Nagusiak, nahiz ohikoak nahiz ohizkanpokoak edo bereziak, lehenengo deialdian balioz eratuta geratuko dira botoa emateko eskubidea duten elkartekideen herena bertaratzen bada; eta bigarren deialdian, botoa emateko eskubidea duten elkartekideen kopurua edozein dela ere.

12. artikulua.- Batzar Nagusiaren erabakiak bertaratuen nahiz ordezkatuen gehiengo sinplez hartuko dira, baiezko botoak ezezkoak baino gehiago direnean. Hala ere, bertaratuen edo ordezkatuen gehiengo kualifikatua (baiezko botoak baliozko botoen erdia baino gehiago badira) beharko dute elkartea desegiteari, estatutuen aldaketei, ondasunen antolamenduari edo besterentzeei eta ordezkaritza-organoko kideen ordainketei buruzko erabakiek.

13. artikulua.- Bazkideek beste edozein bazkideren gain utz dezakete beraien ordezkotza Batzar Nagusietan parte hartzeko. Ordezkotza hori, idatziz egin beharko da, eta Batzarreko idazkariari eman bilera hasi baino lehenago.

ZUZENDARITZA BATZORDEA

14. artikulua.- Zuzendaritza Batzordea elkartearen interesak kudeatu eta ordezkatzen dituen organoa da, Batzar Nagusiaren xedapen eta arteztarauei jarraikiz. Elkartekideek baino ezingo dute osatu ordezkaritza-organoa.

Zuzendaritza Batzordea honako hauek osatuko dute: presidentea, presidenteordea, idazkaria eta diruzaina. eta sei bokal (lau ordezkari Bizkaiko lau osasun-eskualdeen izenean , Ikasleen Kontseiluko ordezkari bat, eta Odol-emaileen Elkarteko Koordinatzaile Orokorra). Gutxienez urtean lau aldiz bildu beharko dute, eta elkartearen ekintzak bideratzeko beharrezkoa den hainbat alditan.

15. artikulua.- Zuzendaritza Batzordeko kideren bat bilera horietara sei aldiz jarraian, edo, aldizka, hamabi aldiz ez bada joaten, dagokion kargua utzi egin beharko du, hutsegite horiek ez baditu arrazoitzen.

16. artikulua.- Batzar Nagusiak hautatuko ditu Zuzendaritza Batzordeko kargudunak. Karguak lau urterako izango dira Batzordeak berariaz ezeztatu ezean, eta behin eta berriro hautatu ahal izango dira.
Zuzendaritza Batzordeko Presidentearen karguduna berariaz eginiko Batzar Nagusiak hautatuko du, hautagaitzaren (baldin balego) aurkezpenaren ostean. Honek, bere aldetik, Presidenteordea, Idazkaria eta Diruzaina hautatuko ditu. Osasun-eskualdeetako bokal ordezkariak eskualdeak berak edota Presidenteak proposatutakoak izan daitezke. Edozein modutan ere, kargudunak eta bokalak berretsi behar ditu Batzar Orokorrak.
Karguak lau urterako izango dira Batzarrak berariaz ezeztatu ezean, eta behin eta berriro hautatu ahal izango dira.

17. artikulua.- Zuzendaritza Batzordekide izateko, honako baldintza hauek bete beharko dira:

Asamblea en segunda convocatoria, sin que entre una y otra pueda mediar un plazo inferior a media hora.

Las Asambleas Generales, tanto ordinarias como extraordinarias, quedarán válidamente constituidas en primera convocatoria, cuando concurran a ella un tercio de los asociados con derecho a voto, y en segunda convocatoria cualquiera que sea el número de asociados con derecho a voto.

Artículo 12.- Los acuerdos de la Asamblea General se adoptarán por mayoría simple de las personas presentes o representadas, cuando los votos afirmativos superen a los negativos. No obstante, requerirán mayoría cualificada de las personas presentes o representadas, que resultará cuando los votos afirmativos superen la mitad de los válidamente emitidos, los acuerdos relativos a la disolución de la asociación, modificación de estatutos, disposición o enajenación de bienes y remuneración de los miembros del órgano de representación.

Artículo 13.- Los socios/as podrán otorgar su representación, a los efectos de asistir a las Asambleas Generales, en cualquier otro socio/a. Tal representación se otorgará por escrito, y deberá obrar en poder del Secretario/a de la Asamblea, antes de que se inicie la sesión.

LA JUNTA DIRECTIVA

Artículo 14.- La Junta Directiva es el órgano de representación que gestiona y representa los intereses de la asociación, de acuerdo con las disposiciones y directivas de la Asamblea General. Sólo podrán formar parte del órgano de representación los asociados.

La Junta Directiva estará integrada por Presidente/a, Vicepresidente/a, Secretario/a y Tesorero/a, y seis vocales (cuatro delegados en representación de las cuatro comarcas sanitarias de Bizkaia, un representante del Consejo estudiantil y el Coordinador General de la Asociación de donantes). Deberán reunirse al menos cuatro veces al año, y siempre que lo exija el buen desarrollo de las actividades sociales.

Artículo 15.- La falta de asistencia a las reuniones señaladas, de los/as miembros de la Junta Directiva, durante seis veces consecutivas o doce alternas sin causa justificada, dará lugar al cese en el cargo respectivo.

artículo 16.- Los cargos que componen la Junta Directiva, se elegirán por la Asamblea General y durarán un período de cuatro años, salvo revocación expresa de aquélla, pudiendo ser objeto de reelección.
El cargo de Presidente de la Junta Directiva será elegido en la Asamblea General a tal efecto, previa presentación de candidatura (si la hubiera), y éste a su vez elegirá al Vicepresidente/a, Secretario/a y Tesorero/a. Los vocales de las comarcas sanitarias serán elegidos a propuesta de su comarca sanitaria o a propuesta del Presidente. En cualquiera de los procedimientos, todos los cargos y vocales serán ratificados por la Asamblea General.
Los cargos durarán un período de cuatro años, salvo revocación expresa de aquélla, pudiendo ser objeto de reelección.

Artículo 17.- Para pertenecer a la Junta Directiva serán requisitos indispensables:

a) Ser mayor de edad, estar en pleno uso de los

| | |
|---|---|
| a)Adinduna izatea, eskubide zibil guztien jabe izatea, eta indarrean den legedian ezarritako bateraezintasun-arrazoirik ez izatea.<br>b)Estatutuetan esaten den eran izendatua izatea.<br>c)Elkarteko eskubidezko bazkide izatea. | derechos civiles y no estar incurso en los motivos de incompatibilidad establecidos en la legislación vigente.<br>b) Ser designado/a en la forma prevista en los Estatutos.<br>c) Ser socio/a de derecho de la entidad. |
| 18. artikulua.- Zuzendaritza Batzordekide kargua, Batzar Nagusiak izendatu ostean, onartutakoan edo jabetzerakoan hartuko da .<br><br>Dena den, Batzar Nagusiak egun-sariak eta gastuak ordaintzea erabaki dezake. | Artículo 18.- El cargo de miembro de la Junta Directiva se asumirá cuando, una vez designado/a por la Asamblea General, se proceda a su aceptación o toma de posesión.<br><br>La Asamblea General podrá establecer, en su caso, el abono de dietas y gastos de los miembros de la Junta Directiva. |
| 19. artikulua.- Zuzendaritza Batzordeko kideek honako kasu hauetan utziko dituzte karguak:<br><br>a)Agintealdia bukatzen denean.<br>b)Dimititzen dutenean.<br>c)Bazkide izateari uzten dionean, edo kargurako ezintasun-arrazoiak dituenean.<br>d)Batzar Nagusiak kargugabetzea erabakiz gero, estatutu hauetako 16. artikuluan jarritakoaren arabera.<br>e)Heriotza.<br><br>"a)" puntuan agertzen dena baldin bada kargua uzteko arrazoia, Zuzendaritza Batzordeko kideek jarduneko egoeran jarraitu beharko dute lehenengo Batzar Nagusia egin arte. Batzar horrek aukeratuko ditu kargudun berriak.<br><br>b), c), d) eta e) puntuetan agertzen dena baldin bada arrazoia, Zuzendaritza Batzordeak berak hutsik geldituko kargua betetzeko norbait behin-behingoz izendatuko du eta Batzar Nagusiak erabakiko du izendapena onetsi ala ezestea. Ezesten bada, dagokion izendapena egingo da.<br><br>Batzorde honen osaeran gertatutako aldaketa guztien berri emango zaio Elkarteen Erregistroari. | artículo 19.- Los miembros de la Junta Directiva cesarán en los siguientes casos:<br><br>a) Expiración del plazo de mandato.<br>b) Dimisión.<br>c) Cese en la condición de socio/a, o incursión en causa de incapacidad.<br>d) Revocación acordada por la Asamblea General en aplicación de lo previsto en el artículo 16 de los presentes estatutos.<br>e) Fallecimiento.<br><br>Cuando se produzca el cese por la causa prevista en el apartado a), los miembros de la Junta Directiva continuarán en funciones hasta la celebración de la primera Asamblea General, que procederá a la elección de los nuevos cargos.<br><br>En los supuestos b), c), d) y e), la propia Junta Directiva proveerá la vacante mediante nombramiento provisional, que será sometido a la Asamblea General para su ratificación o revocación, procediéndose, en este último caso, a la designación correspondiente.<br><br>Todas las modificaciones en la composición de este órgano serán comunicadas al Registro de Asociaciones. |
| 20. artikulua.- Honako hauek dira Zuzendaritza Batzordearen funtzioak:<br><br>a) Elkartearen ohiko kudeaketaz arduratzea, Batzar Nagusiaren jarraibideen arabera eta haren kontrolpean.<br>b) Elkarteak aurrera eramango dituen ekintzen egitaraua egitea.<br>c) Gastu eta sarreren urteko aurrekontua eta aurreko urteko kontuen egoera-orria Batzar Nagusiari, onar ditzan, aurkeztea.<br>d) Batzar Nagusiaren bileretako aztergai-zerrenda egitea, eta Batzar Nagusi Berezi zein ohikoen deialdiak erabakitzea.<br>e) Bazkideek egiten dituzten proposamen eta iradokizunei erantzutea eta dagozkien neurriak hartzea.<br>f) Estatutu hauetan jasotzen diren aginduak interpretatzea eta haietako hutsuneak betetzea, betiere elkarteen inguruan indarrean diren legeei jarraikiz.<br>g)Batzar Nagusiak berariazko erabaki bidez ematen dizkion eskumenak gauzatzea, betiere ez badira bere eskumen esklusibokoak. | artículo 20.- Las funciones de la Junta Directiva son:<br><br>a) Dirigir la gestión ordinaria de la Asociación, de acuerdo con las directrices de la Asamblea General y bajo su control.<br>b) Programar las actividades a desarrollar por la Asociación.<br>c) Someter a la aprobación de la Asamblea General el presupuesto anual de gastos e ingresos, así como el estado de cuentas del año anterior.<br>d) Confeccionar el Orden del Día de las reuniones de la Asamblea General, así como acordar la convocatoria de las Asambleas Generales ordinarias y extraordinarias.<br>e) Atender las propuestas o sugerencias que formulen los socios/as, adoptando al respecto, las medidas necesarias.<br>f) Interpretar los preceptos contenidos en estos Estatutos y cubrir sus lagunas, sometiéndose siempre a la normativa legal vigente en materia de asociaciones.<br>g) Ejercitar aquellas competencias que le otorgue la Asamblea General mediante Acuerdo expreso, siempre que no sean de su exclusiva competencia. |
| 21. artikulua.- Zuzendaritza Batzordeak, presidenteak eta, hala badagokio, presidenteordeak erabakitako bakoitzean egingo ditu bilerak, euren kabuz nahiz batzordekideren batek eskatuta. Bileraren buru presidentea izango da, edo, bertan ez balego, presidenteordea. Biak falta badira, berriz, batzordekide zaharrena. | Artículo 21.- La Junta Directiva celebrará sus sesiones cuantas veces lo determine la Presidencia, o la Vicepresidencia en su caso, bien a iniciativa propia, o a petición de cualquiera de sus componentes. Será presidida por el/la Presidente/a, y en su ausencia, por el/la Vicepresidente/a y, a falta de ambos, por el/la miembro de la Junta que tenga más edad. |

Batzordeak hartutako erabakiak baliozkoak izateko, biltzen diren batzordekideen gehiengoak onartu beharko ditu. Horretarako, gutxienez batzordekideen kopuruaren erdiak egon beharko du Batzarrean.

Para que los acuerdos de la Junta sean válidos, deberán ser adoptados por mayoría de votos de las personas asistentes, requiriéndose la presencia de la mitad de los/las miembros.

Idazkariak bilera-aktak egingo ditu. Agiri horiek dagokien liburuan jasoko dira idatziz.

De las sesiones, el/la Secretario/a levantará acta que se transcribirá al Libro correspondiente.

LAN BATZORDEAK ZONALDE EDO OSASUN-ESKUALDEKA

COMISIONES DE TRABAJO POR ZONAS O COMARCAS SANITARIAS.

21. artikulua Bis.- Zonaldekako lan batzordeen xedea tokiko edota eskualdeko gai interesdunak lantzea da.

Artículo 21 Bis.- Las comisiones de trabajo por zonas tienen como finalidad el desarrollo de temas de interés local y/o comarcal.

Zerbitzuaren beharren arabera edota tokiko ordezka-riek, Zuzendaritza Batzordeak edo Batzar Nagusiak proposatuta egingo da biltzeko deialdia.

Se convocarán según las necesidades del servicio y/o a propuesta de los representantes locales, Junta Directiva y Asamblea general.

Zuzendaritza Batzordeko kidea izateko dagokion bokala proposa dezakete.

Podrán proponer al vocal correspondiente para la Junta Directiva.

PERTSONA BAKARREKO ORGANOAK

ÓRGANOS UNIPERSONALES

PRESIDENTEA

PRESIDENTE/A

22. artikulua.- Presidenteak elkartearen legezko ordezkaritza hartzen du. Zuzendaritza Batzordeak eta Batzar Nagusiak hartutako erabakiak aurrera eramango ditu. Era berean, aipaturiko bi sail horien presidente izango da.

Artículo 22.- El/La Presidente/a de la Asociación asume la representación legal de la misma, y ejecutará los acuerdos adoptados por la Junta Directiva y la Asamblea General, cuya presidencia ostentará respectivamente.

23. artikulua.- Presidenteari egokituko zaizkio hurrengo ahalmenak:

a) Zuzendaritza Batzordeak eta Batzar Nagusiak egiten dituzten bileren deiak egitea; bilerak bukatutzat ematea; bileretan sortzen diren eztabaidak zuzentzea; eta boto-berdinketa gertatuz gero, boto ebazleaz erabakitzea.
b) Elkartearen ekintzen egitasmoa Zuzendaritza Batzordeari proposatzea, eta aldi berean, elkartearen zereginak bultzatu eta zuzentzea.
c) Balioz erabakitako ordainketak egiteko agintzea.
d) Sortu daitezkeen premiazko arazoak konpontzea, eta Zuzendaritza Batzordeari lehenengo bilkuran horien berri ematea.
e) Batzar Nagusiak berariazko erabaki bidez ematen dizkion eskumenak gauzatzea, betiere ez badira haren eskumen esklusibokoak.

Artículo 23.- Corresponderán al Presidente/a las siguientes facultades:

a) Convocar y levantar las sesiones que celebre la Junta Directiva y la Asamblea General, dirigir las deliberaciones de una y otra, y decidir un voto de calidad en caso de empate de votaciones.
b) Proponer el plan de actividades de la Asociación a la Junta Directiva, impulsando y dirigiendo sus tareas.
c) Ordenar los pagos acordados válidamente.
d) Resolver las cuestiones que puedan surgir con carácter urgente, dando conocimiento de ello a la Junta Directiva en la primera sesión que se celebre.
e) Ejercitar aquellas competencias que le otorgue la Asamblea General mediante Acuerdo expreso, siempre que no sean de su exclusiva competencia.

PRESIDENTEORDEA

VICEPRESIDENTE/A

24. artikulua.- Presidenteordeak presidenteari lagunduko dio, eta, presidenteak aldi baterako ezintasuna daukanean, ordezkatu egingo du. Era berean, presidenteak berariaz emandako ahalmen guztiak izango ditu.

Artículo 24.- El/La Vicepresidente/a asumirá las funciones de asistir al Presidente/a y sustituirle en caso de imposibilidad temporal de ejercicio de su cargo. Asimismo, le corresponderán cuantas facultades delegue en él o ella, expresamente, la Presidencia.

IDAZKARIA

SECRETARIO/A

25. artikulua.- Idazkariari dagokio, zehazki, elkartean sartzeko eskabideak hartu eta bideratzea, fitxategia eta Bazkideen Erregistro Liburua zaintzea, eta Akta Liburuaren zaintzaren eta idazketaren ardura izatea.

Artículo 25.- Al Secretario/a le incumbirá de manera concreta recibir y tramitar las solicitudes de ingreso, llevar el fichero y el Libro de Registro de Socios/as, y atender a la custodia y redacción del Libro de Actas.

Era berean, elkarteen arloan indarrean dauden legezko erabakiak bete daitezen arduratuko da, Erakundearen agiri ofizialak zainduz, elkarteko liburuen eta agirien edukia egiaztatuz eta Zuzendaritza Batzordearen hautaketari eta elkartearen egoitza aldatzeari buruzko beharrezko jakinerazpenak dagokion agintaritzarengana bideratuz.

DIRUZAINA

26. artikulua.- Egindako sarrera eta ordainketen berri emango du diruzainak, eta diru-sarrera eta gastuen urteroko aurrekontua eta aurreko urteko kontuen egoera ere jakinaraziko du. Guzti horiek Zuzendaritza Batzordearen aurrean aurkeztu behar dira, eta honek Batzar Nagusiari, onartu ditzan.

HIRUGARREN KAPITULUA

BAZKIDEAK: ONARPEN BIDEAK, BALDINTZAK ETA MAILAK

27. artikulua.-Elkartekide izan nahi eta honako baldintza hauek betetzen dituzten guztiek izan daitezke Elkarteko bazkide: odol emailea edo ~~odol~~ ematearen laguntzailea izan eta gainera legezkoak diren adinduna izan eta eskubidea gauzatzeko inolako lege-baldintzarik ez izatea, ez eta, ebazpen judizial irmoari jarraiki, euren gaitasuna mugatua izatea ere. Pertsona juridikoen kasuan, horretarako ahalmena duen organoak bere baitan balioz hartutako erabakiaren kopia aurkeztu beharko dute, eta, bertan, bazkidetzeko borondatea adierazi, bai eta euren izenean jardungo duena izendatu ere.

28. artikulua.- **Bazkide motak:**

1.a BAZKIDE EMAILE - AKTIBOA: Bazkide emaile aktibotzat hartzen dira azken hiru urteotan gutxienez emanaldi bat duten emaile guztiak. Ez dute boto bidezko zuzeneko parte-hartzerik izango gobernu organoetan, baina proposamenak egin ditzakete bertan.

